Aretxabaletako
Udala

2025IKIB0006

UDAL HAUR ESKOLAKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA IREKIA ARAUTZEN DUTEN KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- HELBURUA

Baldintza-agiri honen helburua da Aretxabaletako udalerrian, udal haur eskolako (0-3 urte bitartekoa, haur hezkuntzako 1. zikloa) ustiaketa adjudikatzeko lehiaketa deialdia arautu behar duten baldintza teknikoak arautzea. Udalak berariaz beregain hartzen duen gizarte eta hezkuntza zerbitzu hori **zeharkako kudeaketa erregimenean** emandakoa da eta haurrari bere beharrei egokitutako eskolaurreko hezkuntza ematen dio. Horretarako, pedagogia teknikarik egokienak erabili eta haurraren kultura eremuan kokatutako hezkuntza eskaintzen da.

2.- JARDUN EREMUA

Komunitateko zerbitzua denez, Udal haur eskola Aretxabaletako haur guztiei zabalik dago, eta komunitate osoaren beharrak bete behar ditu; plaza kopuruak baino ez du mugatuko zerbitzua. Udalerriko eskariari erantzun eta gero, eskualdeko udalerrietako haurrei eman ahal izango die zerbitzua.

3.- ORDUTEGIAK

Zerbitzua goizeko 7:30ean hasi eta arratsaldeko 17:30ak arte emango da.
Ordutegia gutxi gorabeherakoa da, eta azken erabakian aldaketak izan daitezke, bai zerbitzua hasterako orduan bai amaitzerakoan.

4.- HEZKUNTZA ERAIKINEN GUTXIENEKO BALDINTZAK

Pertsonala eta tresnak edukitzeko eraikinak eta bulegoak izango ditu enpresak Aretxabaletan. Horiek egokitzeko egin behar diren gastu guztiak doaz haren kontra, bai eta funtzionamenduenak, lizentzia tasak, e.a. Eskaintza aurkeztean ez baditu, konpromisoa hartuko du zerbitzua martxan ipini aurretik eraikuntza horiek edukitzeko.
1004/1991ko Errege Dekretuak, azaroaren 16ko 215/2004 dekretuak eta Eraikuntzaren Kodigo Teknikoa (314/2006 Errege Dekretuak, martxoaren 17koa, ezartzen dituzten gutxieneko baldintzak jaso behar dituzte instalazioek eta eraikinek.
Eskola eraikinek nahitaez bete beharko dituzte azaroaren 16ko 215/2004, dekretuak ezarritakoak, hala instalazio eta baldintza material orokorrei dagokienez, nola eskainiko dituzten zero eta hiru urte bitarteko etaparekiko berariazko betekizunei dagokienez.

Zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskola guztiek, oro har, ondokoak bete edo izan beharko dituzte, instalazioei edo baldintza materialei dagokienez:

a) Erabilera esklusiboko lokaletan kokatuta behar dute; ezinbestekoa izango da kanpoaldetik sarbide independentea edukitzea.

b) Erabilera anitzeko espazio bat, gutxienez 30m2ko azalera duena

c) Zuzendaritza-idazkaritza bulego bat.

Jolasgunea, Urte 1 eta 3 urte bitarteko umeentzako. Gune hori mugatuta edo zedarrituta egongo da, haurren segurtasuna bermatzeko moduan. Haurrek erabiltzen dutenean eurek baino ez

dute erabiliko eta sei unitate edo horren zatiki bakoitzeko

75m^{2}ko azalera utziko da, gutxienez. Aipatutako unitateez gaineko bakoitzarentzako, berriz, 10m^2 gehiago utzi beharko da.

d) Langileentzako bainugela, haurren unitate eta zerbitzuetatik bananduta: konketa, komuna eta dutxa edukiko ditu.

Aurrekoaz gain, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek ondoko berariazko baldintzak bete beharko dituzte, eskainiko dituzten adin-tarteen arabera:

4.1.- Zerotik urte baterako adin-tartea:

a) Unitate bakoitzeko areto bana (30m^2 gutxienez). Aretoak hainbat gune bereizi izango ditu, ikuspegiaren aldetik elkarri lotuak, haurren atseden eta garbiketarako erabiltzeko moduan.

b) Gune bereizi bat, janariak prestatzeko egokia, aretotik ikus daitekeena.

4.2.- Urte batetik urte birako adin-tartean, unitate bakoitzeko areto bana (30m^2 gutxienez). Aretoak hainbat gune bereizi izango ditu, ikuspegiaren aldetik elkarri lotuak, atseden eta garbiketarako erabiltzeko moduan.

4.3.- Bi urtetik hiru urterako adin-tartean:

a) Unitate bakoitzeko areto bana (30m^2 gutxienez), eskola-postu bakoitzeko 2m^2 izango dituena.

b) Areto bakoitzeko bainugela bana, aretotik ikusteko eta sartzeko moduan; bertan, bina konketa eta bina komun egongo dira, haurrentzako egokiak. Bainugela hori, areto bat baino gehiagorentzat izan daiteke; betiere, areto bakoitzetik ikusten bada eta bertatik sarbidea badu; halakotan, areto bakoitzeko komun bana gehitu beharko da.

4.4.- Hezkuntza-maila bat baino gehiago ematen dituzten zentroek bete beharreko baldintza erkideak.

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Bigarren Hezkuntzako zentroetan, zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza eta arreta ere eskola-eraikin edo esparru berean ematen bada, instalazio komuntzat joko dira zuzendaritza-idazkaritzako bulegoa eta jolastokia; betiere, jolastokia erabiltzeko ordutegi berezia egongo dela bermatuz gero.

4.5.- Instalazioek, 1318/2004 Errege Dekretuan ezarritako baldintzez gain, indarrean dagoen legerian adierazitako baldintzak ere bete beharko dituzte. Hain zuzen ere, higiene, akustika, bizigarritasun eta segurtasunari dagozkienak

5.- HAUR RATIOAK IKASGELAKO:

- Urtebete baino gutxiago duten haurrentzako unitateak: 1/8 - Urte batetik 2 urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 1/13 - Urte bitik 3 urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 1/18

6.- HEZKUNTZA MAILA BAKOITZEKO GUTXIENEKO GELA KOPURUA

Enpresak zerbitzua emateko hezkuntza mailaren arabera gutxieneko ikasgela kopurua izan beharko ditu:

- 0-1 urte: 1 ikasgela
- 1-2 urte: 1 ikasgela
- 2-3 urte: ikasgela 1

7.- IRAKASLEEN ETA LANGILEEN TITULAZIOA

Kontratu honetako zerbitzua behar bezala emateko behar beste langile izan beharko ditu enpresak.

7.1.- Zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur eskolek profesional gaituak eduki beharko dituzte, adin horietako haurrei hezkuntza arreta eta laguntza eskaintzeko prestatuak: ildo horretatik, ondokoetako titulazioren bat eskatuko da:

a) Maisu/maistraren titulua: Haur hezkuntzako espezialitatea edo baliokidea, 94-9-30eko 1954/1994 Errege Dekretuaren (94-11-17 BOE) eta berariazko araudiaren arabera.

Haur Hezkuntzako goi teknikariaren titulua edo baliokidea, 98-4-30eko 777/1998 Errege Dekretuaren (98-5-8 BOE) eta berariazko araudiaren arabera.

b) Hizkuntza eskakizunak: irakasleek Europako Erreferentzia Markoaren C1 maila egiaztatu beharko dute (hezkuntzako bigarren hizkuntza eskakizuna)

Hezkuntza alorreko zerbitzurik eman ez arren haurrekin harreman zuzena duten langileek (jantokikoek…) Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasunaren pareko ahozko maila egiaztatu beharko dute (hezkuntzako lehenengo hizkuntza eskakizuna, ahozkoan).

7.2.- Profesional kopurua

Zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza eta arreta eskaintzen duten eskolek langile gaituak eduki beharko dituzte: zenbat unitate funtzionamenduan, horrenbeste langile gaitu, gutxienez. Aipatutako unitateek gainera, hezkuntza eta arreta eskaintzen duten haur- eskolei dagozkien ratioak bete beharko dituzte, unitate bakoitzeko gehieneko haur kopuruari dagokionez

8.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Langileen euskarazko hizkuntza gaitasuna: Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, udal haur eskolako langileek baldintza plegu honetako 7.1.b) klausulan adierazitako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:
1.- Zerbitzua eman behar duten pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo
2.- Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipenetik kanpo).

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Subrogazio kasuetan, langileek ez badute eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko beharrezko neurriak adostuko dira, herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera

Hizkuntza paisaia: Hizkuntza paisaia osatzen duten errotulu, horma-irudi, ohar eta gainerakoak euskaraz egongo dira.

Hizkuntza erabilera Zerbitzu hartzaileekin: Haurrekiko harremana euskaraz gauzatuko da. Guraso eta bestelako helduekin ere bermatu eta erraztu egingo da bertako eta berezko hizkuntzan, euskaraz alegia, arreta jasotzeko eskubidea, beti ere, beraiek bestelakorik eskatzen ez duten bitartean.

Mezu idatziei dagokienez (inprimakiak, oharrak, kartelak, esku-programak, iragarkiak, jakinarazpenak…) euskaraz edo ele bietan idatziko dira. Hitz gutxitakoak direnean eta bi hizkuntzatan grafia oso antzerakoa dutenean, euskara hutsean idatziko dira, mezua idazteko beharrezkoa denean ele bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez.

Hizkuntza erabilera Udalarekin: kontratu honen bidez Udalaren eta esleipendunaren artean sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, memoria, bilera…) euskaraz izango dira.

9.- UDAL HAUR ESKOLA ZERBITZUAREN PREZIOAK

Hiru prezio mota ezarri dira erabiltzaileen adina kontuan izanda:

Jornada osoa:
0.1 urte.: 242,95€/hilean
1.2 urte: 230,10€/hilean
2-3 urte: 113,26 €/hilean

Ziklo berdinean bi seme-alaba izanez gero, seme-alaba nagusiaren kuotari, hileko kuotaren ordainketan %25a egingo zaio.

9.1.- Ikasturtea irailaren 1etik uztailaren 30era artekoa izango da, eta abuztuan ez da eskolarik edo zerbitzurik emango.

9.2.- Zerbitzu honen erabiltzaileak 11 hilabete ordaindu behar ditu. Ordainketa administrazioko klausula partikularretan jaso bezala egingo da.

10.- ZERBITZUAREN JARRAIPENA
Udalak ahalmena izango du haur hezkuntzako zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuskatu eta emakidadunak bere gain hartutako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.
Udalak emakidari atxikitako eraikin finkoen egoerari zein zerbitzuaren gorabeherei (ordutegiak, tarifak eta abar) buruzko baldintza teknikoak betetzen diren ikuskatu ahal izango du.
Administrazioak zerbitzua kanpotik ikuskatuko badu ere, emakidadunak barne ikuskapena egin beharko du uneoro.